

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2018/19

**Ikastegia**

231 - Psikologia Fakultatea

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

**Ikastaroa**

2. maila

**IRAKASGAIA**

25060 - Pentsamendua eta Mintzaira

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

"Pentsamendua eta Hizkuntza" irakasgaiak bi prozesu hauetan sakonduko du, Giza funtzionamendu kognitiboaren barruan. Pentsamenduaren prozesuen eta Hizkuntzaren ulertze eta ekoizpen prozesuen esposizio zehatz bat eta Pentsamenduaren eta Hizkuntzaren arteko harremanen esposizio integratzaile bat ematen da. Ez dira ez hizkuntzaren garapena ezta hizkuntzaren oinarri neurobiologikoak ere ikusten, gai hauek beste irakasgaietan ematen direlako. Gizaki normalen pentsamendua eta hizkuntza ikusten da; beraz, bi prozesuen psikopatologia ere ez da ikusten.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

- 1) Pentsamendua eta Hizkuntzaren funtzionamendua azaltzen duten oinarritzko erregelak ezagutu.
- 2) Pentsamendua eta Hizkuntzaren prozesuak azaltzen saiatzen diren eredu teorikoak, beren ezaugarriak, ezberdintasunak eta mugak, ezagutu, testu ezberdinak aztertuz, laburtuz, aurkeztuz eta horiei buruz eztabaidatuz.
- 3) Pentsamenduaren funtzionamendua eta honek eguneroko bizitzan dituen efektuak azertu.
- 4) Diskurtsoaren analisi kritiko bat egiteko gai izan, pentsamendua eta hizkuntza gauzatzen diren testuingurua kontuan izanda.
- 5) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak egoki erabiltzeko eta irakasgaiaren edukietan aplikatzeko gai izan.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. GAIA: Pentsamenduaren eta Hizkuntzaren azterketa. Mugaketa kontzeptuala
  - 1.1. Pentsamenduaren eta Hizkuntzaren arteko erlazioak
  - 1.2. Pentsamendu eta Hizkuntza prozesuen ikerketa metodologia
2. GAIA: Arrazonamenduaren Psikologia
  - 2.1. Arrazonamenduaren ikerketa Pentsamenduaren Psikologiaren testuinguruan
  - 2.2. Arrazonamenduaren Psikologian dauden ikerketa eremuak
  - 2.3. Giza arrazonamenduaren ikerketan dauden ikuspuntu teorikoak
3. GAIA: Arrazonamendua
  - 3.1. Arrazonamendu deduktiboa
  - 3.2. Arrazonamendu induktiboa
4. GAIA: Problemen soluzioa
  - 4.1. Gestalt eskola eta problemen soluzioa
  - 4.2. Informazio Prozesaketaren Teoria eta problemen soluzioa
  - 4.3. Arrazonamendu informala
5. GAIA: Hizkuntzaren kontzeptua
  - 5.1. Hizkuntzaren analisi- dimentsioak: egiturazkoa, funtzionala eta jokabidezkoa
  - 5.2. Prozesu Psikologikoak hizkuntzaren erabileran
6. GAIA: Hizkuntza ulertzea
  - 6.1. Hitzak ezagutzea eta ulertzea
  - 6.2. Perpausak ulertzea
  - 6.3. Diskurtsoa ulertzea
7. GAIA: Hizkuntza sortzea
  - 7.1. Mezuaren planifikazio kontzeptuala
  - 7.2. Mezuaren kodifikazio linguistikoa
  - 7.3. Formulatzaileren arkitektura

**METODOLOGIA**

Gelako praktketan eta tailerretan egindako lanaren bidez pentsamendua eta hizkuntzari buruzko egungo gaietan sakontzea bilatzen da. Gai hauek, pentsamenduaren kasuan, adibidez, arrazonamenduaren gaian gailentzen den paradigma deduktiboa baino haratago doaz. Aldi berean, gai hauek pentsamendua eta hizkuntza jendearen zerbitzura bezala ikusten diren ikuspuntu batetik lantzen dira.

3 gai eremu zabal egituratu dira. Gai eremu bakoitza 8 orduetan zehar landuko da bi ordutako 4 klasetan:

### 1. Gure pentsamenduaren sistemak eta mugak

Praktika hau hurrengo helburuekin planteatzen da:

- A) Pentsamenduaren Psikologian kontsideratutako bi pentsamendu sistemak ezagutzea: 1 Sistema, automatikoa, intuitiboa, ia esfortzurik eskatzen ez duena, eta 2 Sistema, kontrolatua eta esfortzua eskatzen duena.  
B) Gure pentsamenduaren zenbait muga ezagutzea: probabilitate gutxiko gertaerek duten efektua, gure ezjakintasuna onartzeko zailtasuna eta munduaren ziurgabetasuna, konfirmazioa sesgoa eta falazia narratiboa.  
C) Pentsamendu sistemari buruzko, gure eguneroko bizitzan pentsatzen dugun moduari buruzko eta gure pentsamenduaren mugei buruzko ondorioak ateratzea.

Gai eremu honetan gaitasunak lortzeko egitekoak:

- a) Teoriari buruzko irakurketa eta testu analisia. Aztertutako testuei buruzko txostenen elaborazioa. Lan praktikoko baten aurkezpen publikoa (1, 2, 3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).  
b) Sakontze tailerrak, metodologia aktiboa erabiliz (3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).

### 2. Pentsamendu (inkontzientea) adimenaren eta ongizatearen zerbitzura

Praktika hau hurrengo helburuekin planteatzen da:

- A) Gigerenzer-en (2008) Sistema 1 edo intuizioaren ikuspegian, intuizioa erabaki adimentsuagoekin (eta, era berean, askotan gure eta inguratzen gaituzten ongizatea handitzen duten erabakiekin) erlazionatzen dela defendatzen duen ikuspegian, sakondu.  
B) Kahneman-en (2012) "Bi nien" arteko ezberdintasuna eta harremana ezagutu: esperimendatzen duen nia eta gogoratzen duen nia.  
C) Gure pentsamendua gure ongizatearekin erlazionatzeko moduari buruzko ondorioak atera.

Gai eremu honetan gaitasunak lortzeko egitekoak:

- a) Testuen irakurketa eta analisia. Aztertutako testuei buruzko txostenen elaborazioa. Lan praktikoko baten aurkezpen publikoa (1, 2, 3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).  
c) Sakontze tailerrak, metodologia aktiboa erabiliz (3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).

### 3. Diskurtsoaren analisi kritikoa eta genero ikuspegia

Praktika hau hurrengo helburuekin planteatzen da:

- A) Diskurtsoaren Analisi Kritikoak ikertzen dituen kontzeptu garrantzitsuenak eta diziplina berri honen aintzindari teorikoak ezagutu.  
B) Diskurtsoa era kritiko batean aztertzea, generoaren ikuspuntutik.  
C) Norberaren diskurtsoaren ikuspuntu kritikoa, generoari dagokionez, azaldu, testu bat (hautatu beharrekoa) aztertuz.

Gai eremu honetan gaitasunak lortzeko egitekoak:

- a) Teoriari buruzko testu originalak irakurri eta aztertu. Aztertutako testuei buruzko txostenen elaborazioa. Testu baten hautaketa eta horren analisi kritikoa, genero ikuspuntutik. Lan praktikokoaren aurkezpen publikoa (1, 2, 3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).  
b) Sakontze eta eztabaidatze gidatutako tailerrak. Testu bat era kritikoan aztertuko da genero ikuspuntutik (3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	34		14				12		
<b>Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.</b>	51		21				18		

**Legenda:** M: Magistrala  
GL: Laborategiko p.  
TA: Tailerra  
S: Mintegia  
GO: Ordenagailuko p.  
TI: Tailer Ind.  
GA: Gelako p.  
GCL: P. klinikoak  
GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 70
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 7
- Talde lanak (arazoaren ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 8
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 15

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaia bi atalez osaturik dago. Bi atal horiek gainditzea derrigorrezkoa da.

Atal teorikoa (azterketa bakarra, bukaeran egingo dena):

Test motako azterketa izango da, aukera anitzekoa, 4 erantzun mota egongo dira eta erantzun oker bakoitzeko penalizazio bat jasoko da ( $A \cdot E / (n-1)$ ) formulatan oinarrituz.

Atal praktikoa:

Ikasleak bi eredu hauen artean aukeratu dezake:

A eredu: Ebaluazio jarraia

Ebaluazioa, Gelako praktiketan eta Tailerretan egindako jarduerak kontuan hartuta egingo da.

Saio bakoitza bukatu eta gero, ikasleek irakurritako testuei buruzko galdera zehatz bati erantzungo diote fitxa bat betez. Saioaren hasieran irakasleak fitxa hori banatuko du eta saioaren bukaeran ikasleek fitxa hori beteta entregatu beharko dute. Fitxa horiek ez dute balioko irakasgaiaren notarako.

Praktika gai eremu bakoitza bukatzean, ebaluatze jarduera bat burutuko da. Guztira, hiru ebaluatze jarduera egingo dira (bat, praktika gai eremu bakoitzeko), eta horiek azken notaren %15a balio izango dute.

Halaber, praktika gai eremu bakoitza amaitutzat emango duen saio horretan, landutako gai bakoitzean (Baldintzazko Arrazonamendua, Hizkuntzaren ekoizpena eta Diskurtsoaren analisia) azpitalde batek lan praktikoa bat burutu beharko du. Lan horretan ikasitako edukiak aplikatu beharko ditu eta horren aurkezpen publikoa ere egingo du.

Taldearen aurkezpena ere baloratuko da. Taldeak lortu dezakeen gehieneko nota, nota osoaren %15a izango da.

Irakasleak, lan hau ebaluatzerakoan, kontuan izango dituen alderdiak honako hauek dira: lanaren eta aurkezpenaren kalitatea, sintesi gaitasuna, aurkezpenean klasea dinamizatzeko gaitasuna, aurkezpenean taldearen parte-hartzea eta gainontzeko ikasleek zein irakasleak planteatutako galderei erantzuteko gaitasuna.

Halaber, gaitasunen garapena sustatzea bilatzen den neurrian, praktika hauen prozesuan zehar ikasleen parte-hartze aktiboa baloratuko da.

Guztira, atal praktikoa irakasgaiaren nota osoaren %30a balio du (praktika gai eremu bakoitza bukatzean egiten diren ebaluatze jarduerak eta lanaren aurkezpena kontuan hartuta). Ikasleak ebaluatze jardueretan, gutxienez, 0,75 puntu lortu beharko du eta, oro har, atal hau gainditzeko, ikasleak, gutxienez, 1,5 puntu eskuratu beharko ditu. Ikasle batek atal praktikoa gainditzeko ez badu, praktiken inguruko bukaerako azterketara aurkeztu beharko da.

B eredu: Bukaerako azterketa

Ikasleren batek klase praktikoa ez aurkeztea erabakitzen badu edo Ebaluazio jarraia bidez atal praktikoa gainditzeko ez badu, atal praktikoko nota praktiken inguruko bukaerako azterketan lortutako notan oinarrituko da. Azterketa honetan, praktiketan landutako gai multzo bakoitzaren inguruko bi galdera ireki egingo dira. Honek, nota finalaren %30a balioko du (gehienez 3 puntu). Atal hau gainditzea derrigorrezkoa da, gutxienez 1,5 puntu lortuz.

Azterketa hau prestatzeko, klase praktikoa gainontzeko ikasleek landutako testuak erabiliko dira.

IRAKASGAI HONETAN NAHIKOA IZANGO DA AZTERKETARA EZ AURKEZTEA DEIALDIARI UKO EGITEKO.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Orientazioak eta uko egitea: Ohiko deialdirako dauden orientazio berdinak.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Praktiketarako irakaskuntza taldeak hautatutako artikulua eta liburu kapituluak irakasleak klaseko lehenengo egunean zehazten ditu.

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarritzko bibliografia

Belinchón, M., Rivière, A. e Igoa, J.M. (1992). Psicología del lenguaje. Madrid: Trotta.

Carreiras, M. (1997). Descubriendo y procesando el lenguaje. Madrid: Trotta.

Carretero, M. eta Asensio, M. (2004) Psicología del Pensamiento. Madrid: Alianza.

De Vega, M. y Cuetos, F. (1999). Psicolingüística del español. Madrid: Trotta.

Domínguez, A. (2002). Lenguaje y psicología: Conjugando forma y función. La Laguna: Servicio de Publicaciones de la

Universidad de La Laguna.

Espino, O. G. (2004). Pensamiento y razonamiento. Madrid: Pirámide.

Gabucio, F. (coord.) (2005). Psicología del pensamiento. Barcelona: UOC.

Garnham, A. y Oakhill, J. (1996). Manual de psicología del pensamiento. Barcelona: Paidós.

Gigerenzer, G. (2008). Decisiones instintivas. La inteligencia del inconsciente. Barcelona: Ariel

Kahneman, D. (2012). Pensar rápido, pensar despacio. Barcelona: Debate.

Santamaría, C. (1995). Introducción al razonamiento humano. Madrid: Alianza.

### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

Ayuso, M. (1997). Razonamiento y Racionalidad. ¿Somos lógicos?. Barcelona: Paidós

Fernández, M. y Anula, A. (1995). Sintaxis y Cognición. Introducción al conocimiento, el procesamiento y los déficit sintácticos. Madrid: Síntesis

García Madruga, J.A.; Garrieto, N.; González Labra, M.J. (2000). Mental Models in Reasoning. Madrid: UNED.

Holyoak, K. eta Morrison, R. (Eds.) (2012) The Oxford Handbook of Thinking and Reasoning. NY: Oxford University Press

Manktelow, K. (1999). Reasoning and Thinking, East Sussex, UK: Psychology Press

Newstead, S. y Evans, J.St.B. (Ed.) (1995). Perspectives on Thinking and Reasoning. Essays in honour of Peter Wason. Hove, UK: LEA

Saiz, C. (coord.) (2002). Pensamiento crítico: Conceptos básicos y actividades prácticas. Madrid: Pirámide.

Schaeken, W.; De Vooght, G.; Vandierendonck, A. y d'Ydewalle, G. (2000). Deductive Reasoning and Strategies. London: LEA

Spivey, M.J., McRae, K, eta Joanisse, M.F. (Eds.) (2012). The Cambridge Handbook of Psycholinguistics. NY: Cambridge University Press

Sternberg, R.J. (1994). Thinking and problem solving. San Diego: Academic Press

Stevenson, R. (1993). Language, Thought and Representation. West Sussex, UK: John Wiley and Sons

### **Aldizkariak**

Applied Cognitive Psychology (URL: <http://www3.interscience.wiley.com/cgi-bin/home>)

Brain and Language (URL: <http://www.sciencedirect.com/>)

Cognitive Psychology (URL: <http://www.sciencedirect.com/>)

Discourse and Society (URL: <http://www.uk.sagepub.com/home.nav>)

Discourse Processes (URL: <http://www.tandf.co.uk/journals/titles/0163853X.asp>)

Discurso y Sociedad (URL: <http://www.dissoc.org/>)

Language and Cognitive Processes (URL: <http://www.tandf.co.uk/journals/pp/01690965.html>)

Psicologica (URL: <http://www.uv.es/revispsi/>)

Thinking and Reasoning (URL: <http://www.tandf.co.uk/journals/pp/13546783.html>)

### **Interneteko helbide interesgarriak**

[http://en.wikipedia.org/wiki/Sapir-Whorf\\_hypothesis](http://en.wikipedia.org/wiki/Sapir-Whorf_hypothesis)

<http://www.phil.mq.edu.au/staff/jsutton/CognitiveConceptionsofLanguage.htm>

<http://platea.pntic.mec.es/~macruz/enlaces/psico/lenguaje.html>

<http://cogprints.org/353/>

<http://www.marxists.org/archive/vygotsky/works/words/ch02.htm>

[www.tcd.ie/Psychology](http://www.tcd.ie/Psychology) (Departamento de Psicología del Trinity College de Dublín)

## **OHARRAK**

Oinarrizko Psikologiako irakasgai bat izanda, eremu aplikatuarekin zubiak eraikitzen dira, ikaslegoari honako ideia transmititu ahal izateko: inplikazio teoriko sakona duten gaiak eguneroko bizitzako fenomenoekin eta aplikatuak eta errelevantzia soziala duten Psikologiako eremuekin (adibidez, Hezkuntza, Klinika, Komunitate-esku-hartzea, etab.) erlazionatuak daude.